| Funtsa / Sozietatea (***) /<br>Fondo / Sociedad (***) | 2018ko eta 2017eko komisio<br>finkoa / Comisión fija 2018 y 2017                                                                                                | 2018ko eta 2017eko komisio aldakorra /<br>Comisión variable 2018 y 2017                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|-------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ezten, Fondo de Capital Riesgo                        | % 1 ordaindutako ondarearen<br>ganean (*) / 1% sobre<br>patrimonio desembolsado (*)                                                                             | % 10 zerga aurreko mozkinaren ganean /<br>10% sobre el beneficio antes de impuestos                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Suhtapen, Fondo de Capital<br>Riesgo (****)           | % 1 ordaindutako ondarearen<br>ganean (*) / 1% sobre<br>patrimonio desembolsado (*)                                                                             | % 20 ordaindutako batez besteko ondare<br>garbiaren % 5 gainditzan duen zerga<br>aurreko mozkinaren ganean / 20% sobre<br>el beneficio antes de impuestos que exceda del<br>5% del Patrimonio Neto medio desembolsado                                                                                                                                                                                |
| Seed Gipuzkoa, S.C.R, S.A                             | % 0,75-% 1 ordaindutako<br>ondarearen arabera (*) /<br>0,75%-1% dependiendo del<br>patrimonio desembolsado (*)                                                  | % 10 zerga aurreko mozkinaren ganean /<br>10% sobre el beneficio antes de impuestos                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Basque, Fondo de Capital Riesgo                       | % 1 ordaindutako ondarearen<br>ganean (*) / 1% sobre<br>patrimonio desembolsado (*)                                                                             | % 2, desinbertsio-eragiketa bakoitzagatik<br>lortutako gainbalioaren ganean / 2% de la<br>plusvalía obtenida por cada operación de<br>desinversión                                                                                                                                                                                                                                                   |
| Lanpar 2013, Fondo de Capital<br>Riesgo               | % 1 ordaindutako ondarearen<br>ganean (*) / 1% sobre<br>patrimonio desembolsado (*)                                                                             | % 2, desinbertsio-eragiketa bakoitzagatik<br>lortutako gainbalioaren ganean / 2% de la<br>plusvalía obtenida por cada operación de<br>desinversión                                                                                                                                                                                                                                                   |
| SOCADÉ, S.A                                           | % 1,5 ondare-balioaren<br>ganean (**) / 1,5% sobre valor<br>patrimonial (**) /                                                                                  | % 10 zerga aurreko mozkinaren ganean<br>/ 10% sobre el beneficio antes de impuestos                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Modragón Innovación, S.A<br>(****)                    | % 1 ordaindutako ondarearen<br>ganean (*) / 1% sobre<br>patrimonio desembolsado (*)                                                                             | % 5 zuzendutako kontabilitateko balio<br>teorikoen ganean / 5% sobre incremento<br>de valores teóricos contables corregidos                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| Modragón Promoción<br>Empresarial, S.A (****)         | % 0,125 hiruileko bakoitzean<br>ordaindutako batez besteko<br>ekarpenen ganean / 0,125%<br>sobre aportaciones medias<br>desembolsadas durante cada<br>trimestre | % 5, zenbateko honena: Ekitaldiko<br>emaitza garbietatik bazkideek<br>ordaindutako ekarpenen batez besteko<br>saldoaren urteko % 2 nominalaren<br>baliokidea kendu ondoren ateratako<br>zenbatekoarena / 5% del importe que<br>resulte de deducir de los resultados netos del<br>ejercicio el equivalente al 2% nominal anual<br>del saldo medio de las aportaciones<br>desembolsadas por los socios |

(\*) Eguneke kapitala erreferentzia hartuta. / (\*) Tomando como referencia el Capital diario.

(\*\*) Eguneke ondare garbiaren batezbestekoa erreferentzia hartuta. / (\*\*) Tomando como referencia la media del Patrimonio Neto diario.

(\*\*\*) 2018ko abenduaren 31n ikuskaritza jaso duten banakako egoera-orri finantzarioak oinarri hartuta kalkulaturik; halere, urteko kontu hauek egiteko orduan amaitu gabe zegoen oraindik, baina, sozietateko administratzaileen iritziz, ez da alderik egongo ikuskaritza-txosten egokiak egitearen ondorioz. / (\*\*\*) Calculadas tomando como base los estados financieros individuales objeto de auditoría al 31 de diciembre de 2018, si bien a la fecha de formulación de las presentes cuentas anuales no se había completado la misma, sin que, en opinión de los Administradores de la Sociedad, puedan existir diferencias derivadas de la emisión de los correspondientes informes de auditoría.

(\*\*\*\*) 2018ko abenduaren 12a, Mondragón Promoción Empresarial, S.A Mondragón Innovación, S.A. hartu egin zuen. / (\*\*\*\*) Con fecha 12 de diciembre de 2018 se ha procedido a la fusión por absorción de Mondragón Innovación, S.A. por parte de Mondragón Promoción Empresarial, S.A.

(\*\*\*\*\*) 2018ko apirilaren 4an desegin da, eta 2018ko abenduaren 13an Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan inskribatu da Suhtapen AKF desegin eta likidatzeagatik. / (\*\*\*\*\*) Con fecha 4 de abril de 2018 se ha disuelto y con fecha 13 de diciembre de 2018 se ha inscrito en la CNMV la baja por disolución y liquidación de Suhtapen FCR.





Sozietatea SPRI taldearen barruan dago sartuta. Talde horren sozietate nagusia SPRI – Enpresa-garapenerako euskal agentzia, eta sozietate hori da urteko kontu bateratuak egiten dituen. SPRI Taldearen urteko kontu bateratuen formulazioa lege ezarritako epearen barruan egiten da; hau da, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen; hau da, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen. SPRIren administratzaileek 2018ko ekitaldiko kontu baterarutak, 2019ko martxoan aurkezteko asmoa dute. 2017ko ekitaldiko kontu bateratuak 2018ko martxoan 28an aurkeztu zituzten eta ondoren ekainak 27an beraurkeztuak izan ziren.

La Sociedad está integrada en el Grupo SPRI cuya sociedad dominante es SPRI – Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, siendo esta sociedad la que formula cuentas anuales consolidadas. Las cuentas anuales consolidadas del Grupo SPRI se formulan dentro del plazo legal establecido, es decir, antes del 31 de marzo de cada año. Los administradores de SPRI tienen previsto formular en el mes de marzo de 2019 las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2018 del Grupo SPRI. Las cuentas anuales consolidadas del ejercicio 2017 del Grupo SPRI fueron formuladas con fecha 28 de marzo de 2018 y posteriormente reformuladas con fecha 27 de junio de 2018.

## **2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

### ***a) Sozietateari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua***

Administratzaileek urteko kontu hauek aurkeztu dituzte sozietateari aplikagarri zaion finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorritz. Honako hauetan ezarritakoa da hori:

- 7/2008 Zirkularra, azaroaren 26koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena (6/2010 Zirkularrak, abenduaren 21ekoak, eta 5/2011 Zirkularrak, abenduaren 12koak, aldatuta).
- 22/2014 Legea, azaroaren 12koa, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen.
- Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.
- 1514/2007 Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra.
- Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatuz onartutako

## **2. Bases de presentación de las cuentas anuales**

### ***a) Marco normativo de información financiera aplicable a la Sociedad***

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la Sociedad, que es el establecido en:

- Circular 7/2008, de 26 de noviembre, de la Comisión Nacional del Mercado de Valores (que fue objeto de modificaciones por la Circular 6/2010, de 21 de diciembre y por la Circular 5/2011, de 12 de diciembre).
- Ley 22/2014 de 12 de noviembre, reguladora de entidades de capital-riesgo, otras entidades de inversión colectiva de tipo cerrado y las sociedades gestoras de entidades de inversión colectiva de tipo cerrado.
- Código de Comercio y restante legislación mercantil.
- Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007.
- Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en desarrollo del Plan





nahitaez bete beharreko arauak, bai eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako nahitaez bete beharreko arauak ere.

- Aplikatzekoak diren Espainiako gainerako kontabilitate-arauak.

#### **b) Irudi fidela**

Sozietatearen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira urteko kontuak, eta aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorritz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorritz aurkezten dira. Horrenbestez, 2018ko abenduaren 31n izandako sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren, eragiketako emaitzen zein egun horretan amaitutako urteko ekitaldian sortutako ondare garbiaren aldaketen irudi fidela erakusten dute. Sozietatearen administratzaileek egin dituzte urteko kontuak, eta Akziodunen Batzar Nagusiaren onespina jaso beharko dute, baina, espero dugunaren arabera, batere aldaketarik gabe onartuko ditu. 2017eko ekitaldiaren urteko kontuak, berriz, 2018ko apirilaren 27ko Akziodunen Batzar Nagusian onartu ziren.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren azaroaren 26ko 7/2008 Zirkularraren 8.6 Erregistro eta Balorazio Arauan azaldutakoarekin bat etorritz, sozietateak ez du eskudiru-fluxuaren egoera-orririk prestatu, negozioen urteko zifrari eta langileen batez besteko kopuruari dagokienez ez baitira behar diren baldintzak betetzen ekitaldia ixtean.

General de Contabilidad y sus normas complementarias, así como las normas de obligado cumplimiento aprobadas por la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

- El resto de normativa contable española que resulte de aplicación.

#### **b) Imagen fiel**

Las cuentas anuales de la Sociedad han sido obtenidas de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que le resulta de aplicación y, en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2018 y de los resultados de sus operaciones y de los cambios en el patrimonio neto que se han generado durante el ejercicio anual terminado en esa fecha. Estas cuentas anuales, que han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad, se someterán a aprobación por la Junta General de Accionistas, estimándose que serán aprobadas sin modificación alguna. Por su parte, las cuentas anuales del ejercicio 2017 fueron aprobadas por la Junta General de Accionistas celebrada el 27 de abril de 2018.

De acuerdo con lo expuesto en la Norma de Registro y Valoración 8ª.6 de la Circular 7/2008, de 26 de noviembre, de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, la Sociedad no ha preparado estado de flujos de efectivo, al no concurrir las circunstancias necesarias en cuanto a cifra anual de negocios y número medio de trabajadores al cierre del ejercicio.





**c) Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak**

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin nabarmena dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

**d) Ziurgabetasunaren balorazioari eta estimazioari buruzko alderdi kritikoak**

Erantsitako urteko kontuak egiteko orduan, sozietatearen administratzaileek eginiko zenbatespenak erabili dira, erregistraturiko aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu edo konpromisoetako batzuk baloratzeko. Oro har, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Aktibo jakin batzuen narriaduragatik izan litezkeen galerak ebaluatzea (6. eta 7. oharra).
- Aktibo materialen bizitza baliagarria (3.g oharra).
- Sozietateak administratzen dituen funtsen eta sozietateen itxierako zenbatespen onena oinarri hartuta ezarri eta erregistratu da kudeatutako arrisku-kapitaleko funtsetatik eta sozietatetik jasoko den komisio aldakorrenaren zenbatekoa (1., 6., 16.1 eta 17. oharra).

Aipatutako zenbatespen horiek 2018ko ekitaldiaren itxieran aztertutako egitatei buruz eskura zegoen informazio onenaren arabera eginda ere, baliteke etorkizuneko gertaerek hurrengo ekitaldietan horiek aldatzera behartzea (gorantz edo beherantz); halakorik gertatuz gero, era prospektiboan egingo litzateke aldaketa hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren azaroaren 26ko 7/2008 Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz.

**c) Principios contables no obligatorios aplicados**

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que, siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

**d) Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre**

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas se han utilizado estimaciones realizadas por los Administradores de la Sociedad para valorar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Básicamente, estas estimaciones se refieren a:

- La evaluación de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos (Notas 6 y 7).
- La vida útil de los activos materiales (Nota 3.g).
- El importe de la comisión variable que se recibirá de los Fondos de Capital Riesgo y Sociedades gestionadas ha sido establecida y registrada sobre la base de la mejor estimación de cierre de los Fondos y las sociedades que la Sociedad administra (Notas 1, 6, 16.1 y 17).

A pesar de que estas estimaciones se han realizado en función de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2018, pudiera ser que acontecimientos que, en su caso, tengan lugar en el futuro obliguen a modificar dichas estimaciones (al alza o a la baja) en próximos ejercicios, lo que se haría conforme a lo establecido en la Circular 7/2008, de 26 de noviembre, de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, de forma prospectiva.





**e) Informazioaren konparazioa**

2017ko ekitaldiari dagokionez urteko kontu hauetan jasotako informazioa, alderatzeko bakarrik, 2018ko ekitaldiko informazioarekin batera aurkezten da.

**f) Partidak taldekatzea**

Balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko zenbait partida taldekatuta aurkeztu dira errazago uler daitezen; hala ere, informazioaren garrantziaren arabera, banaka eskaini dira dagozkien memoriako oharretan.

**g) Kontabilitate-irizpideen aldaketak**

Kontabilitate-irizpideetan ez da aldaketa nabarmenik gertatu 2018ko ekitaldian, 2017eko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

**h) Erroreak zuzentzea**

Erantsitako urteko kontuak egiteko orduan ez da errore nabarmenik antzeman, eta ez dira, beraz, 2017eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoak berriro adierazi behar izan.

**i) Eragina ingurumenean**

Sozietatearen jarduerak direla eta, sozietateak ez du ingurumenari dagokionez erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik zein arriskurik; ez behintzat sozietatearen ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez nabarmena izan litekeenik. Hori dela eta, memoria honetan ez dugu ingurumen-arloko informazioari buruzko berriazko banakatzerik egin.

**e) Comparación de la información**

La información contenida en estas cuentas anuales relativa al ejercicio 2017 se presenta única y exclusivamente, a efectos comparativos, junto con la información correspondiente al ejercicio 2018.

**f) Agrupación de partidas**

Determinadas partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias y del estado de cambios en el patrimonio neto se presentan de forma agrupada para facilitar su comprensión, si bien, en la medida en que sea significativa, se ha incluido la información desagrupada en las correspondientes notas de la memoria.

**g) Cambios de criterios contables**

Durante el ejercicio 2018 no se han producido cambios de criterios contables significativos respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2017.

**h) Corrección de errores**

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas anuales del ejercicio 2017.

**i) Impacto medioambiental**

Dadas las actividades a las que se dedica la Sociedad, ésta no tiene responsabilidades, gastos, activos, ni provisiones o contingencias de naturaleza medioambiental que pudieran ser significativos en relación con el patrimonio, la situación financiera y los resultados de la misma. Por este motivo, no se incluyen desgloses específicos en la presente memoria respecto a información de cuestiones medioambiental.





### **3. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak**

Sozietatearen 2018ko ekitaldiaren urteko kontuak egiteko orduan kontabilitateko honako printzipio eta politika zein irizpide hauek aplikatu dira, azaroaren 26ko 7/2008 Zirkularrean ezarritakoarekin bat etorritz:

#### **a) Finantza-aktiboen eta pasiboen sailkapena**

##### *i. Finantza-aktiboen sailkapena*

Finantza-aktiboak balantzean taldekatuta aurkezten dira, lehenik, kudeatzeko eta baloratzeko sailkatzen diren kategoria ezberdinen barruan, betiere «Salgai dauden aktibo ez-korrente» modura aurkeztu behar ez badira, edo «Diruzaintza»koak ez badira, orduan bereiz erakusten baitira. Finantza-aktiboak, baloratzeko, «Negoiazio-zorroa» eta «Kreditu-inbertsioak» kategorietan sailkatzen dira.

Finantza-aktiboak balantzeko epigrafe hauetan daude banakatuta:

- Diruzaintza: eskudiruko saldoak eta Espainiako Bankuan eta beste banku zentral batzuetan berehalako eskuragarritasuna duten saldo zordunak biltzen ditu, hala badagokio.
- Finantza-bitartekariei emandako kredituak: finantza-bitartekarien izenean dauden era guztietako kredituak, negoziagarri bihurtzen dituen prozeduraren baten bidez eratutakoak izan ezik. Aktibo horiek guztiak, funtsean ageriko eta eperako kontuei, aktiboen aldi baterako eskuratzei eta kobratzeko dauden komisioei dagozkienak, «Kreditu-inbertsioak» zorroan daude jasota baloratzeko.
- Kredituak eta kobratzeko beste partida batzuk: kredituak eragiketa komertzialengatik eta ez-komertzialengatik, finantza-aktiboak barne hartuta, baldin eta

### **3. Normas de registro y valoración**

En la elaboración de las cuentas anuales de la Sociedad correspondientes al ejercicio 2018 se han aplicado los siguientes principios y políticas contables y criterios de elaboración, de acuerdo con lo establecido en la Circular 7/2008, de 26 de noviembre:

#### **a) Clasificación de los activos y pasivos financieros**

##### *i. Clasificación de los activos financieros*

Los activos financieros se presentan en el balance agrupados, en primer lugar, dentro de las diferentes categorías en las que se clasifican a efectos de su gestión y valoración, salvo que se deban presentar, en su caso, como "Activos no corrientes en venta", o correspondan a "Tesorería", que se muestran de forma independiente. Las categorías en las que se clasifican los activos financieros a efectos de valoración son "Cartera de negociación" e "Inversiones crediticias".

Los activos financieros se desglosan en función de su presentación en los siguientes epígrafes del balance:

- Tesorería: recoge, en su caso, saldos en efectivo y saldos deudores con disponibilidad inmediata en el Banco de España y otros bancos centrales.
- Crédito a intermediarios financieros: créditos de cualquier naturaleza a nombre de intermediarios financieros, salvo los instrumentados por algún procedimiento que los haga negociables. La totalidad de estos activos, que corresponden básicamente a cuentas a la vista y a plazo, a adquisiciones temporales de activos y a comisiones pendientes de cobro, se incluyen a efectos de valoración en la cartera de "Inversiones crediticias".
- Créditos y otras partidas a cobrar: créditos por operaciones comerciales y no comerciales, que incluyen los activos financieros cuyos cobros son de cuantía





haien kobrantzak zenbateko zehatzekoak edo zehaztu daitekeen zenbatekokoak badira, merkatu aktibo batean negoziatzen ez badira, eta sozietateak egindako ordainketa osoa berreskuratzea estimatzen bada, zordunaren kaudimenari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez bada.

#### ii. Finantza-pasiboen sailkapena

Finantza-pasiboak balantzean taldekatuta aurkezten dira, lehenik, kudeatzeko eta baloratzeko sailkatzen diren kategoria ezberdinen barruan, betiere «Salgai dauden aktibo ez-korronteekin lotutako pasibo» modura aurkeztu behar ez badira, orduan bereiz erakusten baitira. Sozietatearen finantza-pasibo guztiak, balioesteko, «Kosta amortizatuko finantza-pasibo» modura sailkatzen dira.

Finantza-pasiboak balantzeko atal hauetan daude jasota:

- Finantza-bitartekarietako zorrak: finantza-bitartekarietako ordaintzeko dauden obligazioengatik saldo hartzekodunak, hala nola jasotako maileguak eta kredituak, ordaintzeko dauden komisioak eta balio-eragiketengatik hartzekodunak, balio negoziagarrietan eratutakoak izan ezik.
- Partikularretako zorrak: partikularrei ordaintzeko dauden obligazioengatik saldo hartzekodunak biltzen ditu, hala nola jasotako maileguak eta kredituak, ordaintzeko dauden ordainsariak eta beste hartzekodun batzuk, balio negoziagarrietan eratutakoak izan ezik.
- Beste finantza-pasibo batzuk: beste kategoria batzuetan jasota ez dauden finantza-pasiboen izaera duten ordaintzeko obligazioen zenbatekoa biltzen du.

determinada o determinable, que no se negocian en un mercado activo y para los que se estima recuperar todo el desembolso realizado por la Sociedad, salvo, en su caso, por razones imputables a la solvencia del deudor.

#### ii. Clasificación de los pasivos financieros

Los pasivos financieros se presentan en el balance agrupados, en primer lugar, dentro de las diferentes categorías en las que se clasifican a efectos de su gestión y valoración, salvo que se deban presentar, en su caso, como "Pasivos asociados con activos no corrientes en venta", que se muestran de forma independiente. La totalidad de los pasivos financieros de la Sociedad se clasifican a efectos de valoración como "Pasivos financieros a coste amortizado".

Los pasivos financieros se incluyen, en función de su presentación, en los siguientes apartados del balance:

- Deudas con intermediarios financieros: saldos acreedores por obligaciones pendientes de pago a intermediarios financieros, tales como, en su caso, préstamos, y créditos recibidos, comisiones pendientes de pago y acreedores por operaciones de valores, excepto los instrumentados en valores negociables.
- Deudas con particulares: recoge los saldos acreedores por obligaciones pendientes de pago a particulares, tales como en su caso, los préstamos y créditos recibidos, remuneraciones pendientes de pago, y otros acreedores, excepto los instrumentados en valores negociables.
- Otros pasivos financieros: incluye el importe de las obligaciones a pagar con naturaleza de pasivos financieros no incluidos en otras categorías.





**b) Finantza-aktiboen eta -pasiboen emaitzen balioespena eta erregistroa**

Oro har, finantza-aktiboak eta -pasiboak arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira hasieran; kontrako ebidentziarik ezean, transakzio-prezioa izango da hori. Finantza-aktiboaren eskuratzeari edo finantza-pasiboaren jaulkipenari zuzenean egoztekoak diren transakzio-kostuen arabera doituko da zenbateko hori, galdu-irabazietan aldaketak egonik arrazoizko balioan baloratutako kategoria jasotzen diren finantza-tresnen kasuan izan ezik, halakorik badago. Ondoren, eta kontabilitateko itxiera bakoitza dela eta, honako irizpide hauekin bat etorritz balioesten dira:

**i. Finantza-aktiboen balorazioa**

«Kreditu-inbertsioak» «amortizatutako kostua»ren arabera baloratzen dira, eta «interes-tasa efektiboa»ren metodoa erabiltzen da hori zehazteko. «Kostu amortizatua» finantza-aktibo edo -pasibo bat eskuratzeko kostua da, baina honako hauen arabera zuzenduta (gehiago edo gutxiago, kasuaren arabera): printzipalaren diru-itzultzeak eta hasierako kostuaren eta epemugan dagokion diru-itzultze balioaren arteko diferentziatik galdu-irabazien kontuetara sistematikoki egotzitako zatia. Finantza-aktiboen kasuan, kostu amortizatuak, gainera, izan duten narriadurak, halakorik izan bada, eragindako balio-zuzenketak ere hartzen ditu barnean.

«Interes-tasa efektiboa» finantza-tresna baten hasierako balioa geratzen zaion bizitza tarteko kontzeptu guztien truke estimatutako eskudiru-fluxuen osotasunarekin berdintzen duen eguneratze-tasa da. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnei dagokienez, interes-tasa efektiboa bat dator eskuratzekoan ezarritako kontratuko interes-tasarekin gehi, kasuan kasu, bere ezaugarriak direla-eta interes-tasa bati asimila dakizkiokeen komisioekin. Interes-tasa aldakorra daukaten finantza-tresnen kasuan, interes-tasa efektiboa bat dator erreferentziazko interes-tasaren lehenengo berrikusketa egin arteko kontzeptu guztien indarreko etekin-tasarekin.

**b) Valoración y registro de resultados de los activos y pasivos financieros**

Generalmente, los activos y pasivos financieros se registran inicialmente por su valor razonable que, salvo evidencia en contra, será el precio de la transacción. Dicho importe se ajustará por los costes de transacción que sean directamente atribuibles a la adquisición del activo financiero o a la emisión del pasivo financiero, excepto para los instrumentos financieros que se incluyan, en su caso, en la categoría de valorados a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias. Posteriormente, y con ocasión de cada cierre contable, se procede a valorarlos de acuerdo con los siguientes criterios:

**i. Valoración de los activos financieros**

Las "Inversiones crediticias" se valoran a su "coste amortizado", utilizándose en su determinación el método del "tipo de interés efectivo". Por "coste amortizado" se entiende el coste de adquisición de un activo o pasivo financiero corregido (en más o en menos, según sea el caso) por los reembolsos de principal y la parte imputada sistemáticamente a las cuentas de pérdidas y ganancias de la diferencia entre el coste inicial y el correspondiente valor de reembolso al vencimiento. En el caso de los activos financieros, el coste amortizado incluye, además, las correcciones a su valor motivadas, en su caso, por el deterioro que hayan experimentado.

El "tipo de interés efectivo" es el tipo de actualización que iguala exactamente el valor inicial de un instrumento financiero a la totalidad de sus flujos de efectivo estimados por todos los conceptos a lo largo de su vida remanente. Para los instrumentos financieros a tipo de interés fijo, el tipo de interés efectivo coincide con el tipo de interés contractual establecido en el momento de su adquisición más, en su caso, las comisiones que, por su naturaleza, sean asimilables a un tipo de interés. En los instrumentos financieros a tipos de interés variable, el tipo de interés efectivo coincide, en su caso, con la tasa de rendimiento vigente por todos los conceptos hasta la primera revisión del tipo de interés de referencia que vaya a tener lugar.





Finantza-aktiboak erregistraturik ageri diren zenbatekoek, alderdi nabarmen guztietan, sozietateak duen kreditu-arriskuarekiko esposizio-maila handiena adierazten dute finantza-egoerak aurkezteko data bakoitzean.

*ii. Finantza-pasiboen balorazioa*

Finantza-pasiboak oro har kostu amortizatuaren arabera balioesten dira, hori aurretik zehaztu den moduan.

*iii. Emaizten erregistroa*

Finantza-aktiboen eta -pasiboen arrazoizko balioko aldakuntzak, oro har, kontrapartidarekin erregistratzen dira galdu-irabazien kontuan, honako hauek berezita: interesen sortzapenean jatorria dutenak («Asimilatutako interesak eta etekinak» eta «Asimilatutako interesak eta kargak» epigrafeetan erregistratzen dira, dagokion arabera), aktiboen kreditu-kalitatearen narriadurak eragindakoak eta beste kausa batzuei dagozkienak, eta zenbateko garbiarekin erregistratzen dira galdu-irabazien kontuko «Finantza-eragiketen emaitzak» epigrafean.

**c) Finantza-aktiboei eta -pasiboei balantzean baja ematea**

Finantza-aktiboei balantzean baja ematen zaie horrelakoek sortutako eskudiru-fluxuak azkendu direnean edo horiek inplizituki daramatzan arriskuak eta mozkinak hirugarrenei nabarmen transferitu zaizkienean soilik. Era berean, finantza-pasiboei balantzean baja ematen zaie sortzen dituzten obligazioak azkendu direnean edo eskuratzen direnean (dela ezerezteko asmoz, dela berriro jartzeko asmoz).

**d) Saldoen konpentsazioak**

Kontratu bati edo legezko arau bati jarraikiz konpentsatzeko aukera aurreikusten duten transakzioetatik eratorritako saldo zordunak eta hartzekodunak elkarren artean konpentsatzen

Los importes por los que figuran registrados los activos financieros representan, en todos los aspectos significativos, el máximo nivel de exposición al riesgo de crédito de la Sociedad en cada fecha de presentación de los estados financieros.

*ii. Valoración de los pasivos financieros*

Los pasivos financieros se valoran generalmente a su coste amortizado, tal y como éste ha sido definido anteriormente.

*iii. Registro de resultados*

Como norma general, las variaciones en el valor razonable de los activos y pasivos financieros se registran con contrapartida en la cuenta de pérdidas y ganancias, diferenciándose entre las que tienen su origen en el devengo de intereses (que se registran en los epígrafes "Intereses y rendimientos asimilados" e "Intereses y cargas asimiladas", según proceda), las originadas por el deterioro en la calidad crediticia de los activos y las que correspondan a otras causas, que se registran, por su importe neto, en el epígrafe "Resultados de operaciones financieras" de la cuenta de pérdidas y ganancias.

**c) Baja del balance de los activos y pasivos financieros**

Los activos financieros solo se dan de baja del balance cuando se han extinguido los flujos de efectivo que generan o cuando se han transferido sustancialmente a terceros los riesgos y beneficios que llevan implícitos. Similarmente, los pasivos financieros solo se dan de baja del balance cuando se han extinguido las obligaciones que generan o cuando se adquieren (bien sea con la intención de cancelarlos, bien con la intención de recolocarlos de nuevo).

**d) Compensaciones de saldos**

Se compensan entre sí - y, consecuentemente, se presentan en el balance por su importe neto - los saldos deudores y acreedores con origen en transacciones que, contractualmente o por





dira –eta ondorioz zenbateko garbiarekin aurkezten dira balantzean–, betiere zenbateko garbia likidatzeko edo aktiboa diru bihurtzeko eta aldi berean pasiboa ordaintzeko asmoa baldin badago, eta alderdi kontratugileetako bat finantza-erakundea bada.

imperativo de una norma legal, contemplan la posibilidad de compensación y se tiene la intención de liquidarlos por su importe neto o de realizar el activo y proceder al pago del pasivo de forma simultánea y en los que una de las partes contratantes sea una entidad financiera.

#### e) *Finantza-aktiboen balio-narriadura*

Finantza-aktibo bat narriatutzat jotzen da (eta, ondorioz, haren kontabilitate-balioa zuzenduko da narriaduraren efektua jasotzeko), baldin eta objektiboki froga badaiteke honako hauek gertatu direla:

- Kredituen kasuan, eragin negatiboa transakzioa formalizatzeko unean kalkulatzeko etorkizuneko diru-fluxuetan.
- Kapital-tresnen kasuan, kontabilitateko balioa osorik berreskuratu ezin badaiteke.

Sozietateak aktibo narriatutzat (zalantzazko aktiboak) jotzen ditu narriaduraren ebidentzia objektiboak dituzten zor-tresnak; funtsean, honako hauek izaten dira horiek: ez-ordaintzeak, ez-betetzeak, birfinantzazioak egotea edo dauden datuek agerian uzten badute hitzartutako etorkizuneko fluxu guztiak ez berreskuratzeko aukera edo atzerapena egongo dela horiek kobratzeko orduan.

Kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktiboei dagokienez, narriaduragatiko galeren zenbatekoa kalkulatzeko da bi hauen arteko diferentziaren arabera: kontabilitateko balioa eta etorkizuneko sortuko direla estimatzen den eskudiru-fluxuen balio eguneratua, horiek aktiboa hasieran aitortzean dagoen interes-tasa efektiboaren arabera deskontatuta. Interes-tasa aldakorrek finantza-aktiboetan, urteko kontuen itxiera-egunari dagokion interes-tasa efektiboa erabiliko da. Merkataritzako zordun eta kobratzeko bestelako kontuetan, sozietateak zalantzazko aktibotzat jotzen ditu sei hilabete baino gehiagoz mugaeguneratutako partidak dituzten saldoak, baldin eta horiek kobratuko direlako segurtasunik

#### e) *Deterioro del valor de los activos financieros*

Un activo financiero se considera deteriorado (y, consecuentemente, se corrige su valor en libros para reflejar el efecto de su deterioro) cuando existe una evidencia objetiva de que se han producido eventos que dan lugar a:

- En el caso de créditos, un impacto negativo en los flujos de efectivo futuros que se estimaron en el momento de formalizarse la transacción.
- En el caso de instrumentos de capital, que no pueda recuperarse íntegramente su valor en libros.

La Sociedad considera como activos deteriorados (activos dudosos) aquellos instrumentos de deuda para los que existen evidencias objetivas de deterioro, que hacen referencia fundamentalmente a la existencia de impagados, incumplimientos, refinanciaciones y a la existencia de datos que evidencien la posibilidad de no recuperar la totalidad de los flujos futuros pactados o que se produzca un retraso en su cobro.

En el caso de los activos financieros valorados a su coste amortizado, el importe de las pérdidas por deterioro se calcula por la diferencia entre su valor en libros y el valor actual de los flujos de efectivo futuros que se estima van a generar, descontados al tipo de interés efectivo existente en el momento del reconocimiento inicial del activo. Para los activos financieros a tipo de interés variable se utiliza el tipo de interés efectivo a la fecha de cierre de las cuentas anuales. Para los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, la Sociedad considera como activos dudosos aquellos saldos que tienen partidas vencidas a más de seis meses para las que no existe seguridad de su cobro y los saldos de empresas que han solicitado un concurso





ez badago, eta hartzekodun-konkurtsua eskatu duten enpresen saldoak. Kotizatutako tresnentsat haien merkatu-balioa hartzen du kontuan sozietateak etorkizuneko eskudiru-fluxuen balio eguneratuaren orde, betiere behar bezain fidagarria bada.

Irizpide orokor gisa, finantza-tresnen kontabilitateko balioaren narriaduragatiko zuzenketa egiten da narriadura hori agertzen den aldiko galdu-irabazien kontuaren kargura; aldez aurretik erregistraturiko narriaduragatiko galeren berreskuratzeak, berriz, halakorik badago, narriadura desagertzen edo murrizten den aldiko galdu-irabazietako kontuan aitortzen dira.

Finantza-aktiboen narriaduragatiko galerarik ez da gertatu 2018an.

**f) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak**

Epigrafe honetan jasotzen dira kutxako eskudirua, bankuko kontu korronteak eta gordailuak, eta honako baldintza hauek guztiak betetzen dituzten aktiboen aldi baterako eskuratzeak:

- Eskudiru bihurtgarriak dira.
- Eskuratzeko unean epemuga ez zen hiru hilabete baino gehiagokoa.

Ez dute balioa aldatzeko arrisku nabarmenik. Sozietatearen diruzaintzaren ohiko kudeaketa-politikaren zati dira.

**g) Aktibo materialak**

Sozietatearen jabetzako altzarien, instalazioen, informatika- eta komunikazio-ekipoen eta bestelakoen zenbatekoa jasotzen du; guztiak, xedea dela eta, «sozietateak berak erabiltzeko ibilgetu material» gisa erregistraturik.

Ibilgetu hori (sozietateak berak jarraian erabiltzea aurreikusitako aktibo materialak jasotzen ditu funtsean) eskuratzeko kostuarekin aurkezten da, dagokion amortizazio metatua kenduta eta, egokia bada, partida bakoitzaren balio garbia eta dagokion zenbateko

de acreedores. La Sociedad considera para los instrumentos cotizados el valor de mercado de los mismos como sustituto del valor actual de los flujos de efectivo futuro, siempre que sea suficientemente fiable.

Como criterio general, la corrección del valor en libros de los instrumentos financieros por causa de su deterioro se efectúa con cargo a la cuenta de pérdidas y ganancias del período en el que tal deterioro se manifiesta y las recuperaciones de las pérdidas por deterioro previamente registradas, en caso de producirse, se reconocen en la cuenta de pérdidas y ganancias del período en el que el deterioro deja de existir o se reduce.

En 2018 no se han producido pérdidas por deterioro de activos financieros.

**f) Efectivo y otros activos líquidos equivalentes**

Este epígrafe incluye el efectivo en caja, las cuentas corrientes bancarias y los depósitos y adquisiciones temporales de activos que cumplen con todos los siguientes requisitos:

- Son convertibles en efectivo.
- En el momento de su adquisición su vencimiento no era superior a tres meses.

No están sujetos a un riesgo significativo de cambio de valor. Forman parte de la política de gestión normal de tesorería de la Sociedad.

**g) Activos materiales**

Incluye el importe del mobiliario, instalaciones, equipos informáticos y de comunicación y otras instalaciones propiedad de la Sociedad; registrados todos ellos, dado su destino, como "inmovilizado material de uso propio".

Dicho inmovilizado (que incluye, básicamente, los activos materiales a los que se prevé darles un uso continuado y propio) se presenta a su coste de adquisición, menos su correspondiente amortización acumulada y, si procede, las pérdidas estimadas que resultan de comparar el





berreskuragarria alderatuta estimatutako galerak ere kenduta.

Amortizazioa kalkulatzeko orduan, aktiboak eskuratzeko kostuari hondar-balioa kenduta ateratako emaitzaren gainean aplikatzen da metodo lineala.

Aktibo materialen amortizazioaren kontzeptuko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontuko «Amortizazioa» epigrafeko kontrapartidarekin egiten dira, batezbesteko modura, elementu ezberdinen bizitza baliagarriko urteen arabera kalkulaturako urteko amortizazio-ehunekoak aplikatuz, honako xehetasun honen arabera:

valor neto de cada partida con su correspondiente importe recuperable.

La amortización se calcula, aplicando el método lineal, sobre el coste de adquisición de los activos menos su valor residual.

Las dotaciones anuales en concepto de amortización de los activos materiales se realizan con contrapartida en el epígrafe "Amortización" de la cuenta de pérdidas y ganancias aplicando porcentajes de amortización anual calculados en función de los años de la vida útil estimada, como promedio, de los diferentes elementos, según el siguiente detalle:

|                                                                                        | Bizitza baliagarriko urteak<br>/ Años de vida útil |
|----------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| <b>Bestelako instalazioak</b> /Otras instalaciones                                     | <b>7 urte</b> / 7 años                             |
| <b>Altzariak eta lanabesak</b> /Mobiliario y enseres                                   | <b>7 urte</b> / 7 años                             |
| <b>Informazioa prozesatzeko ekipamenduak</b><br>/ Equipos para procesos de información | <b>4 urte</b> / 4 años                             |

Aktibo materialeko elementuen balio garbiak dagokion zenbateko berreskuragarria gainditzen duen zantzurik dagoen aztertzen da kontabilitateko itxiera bakoitzean; hori gertatuz gero, dena delako aktiboaren kontabilitateko balioa murrizten da, eta amortizazioaren kontzeptuko etorkizuneko zordunketak doituko dira kontabilitateko balio doitua eta gertatzen den bizitza baliagarri berriaren arabera, azken hori berriz ere estimatu behar izanez gero.

Era berean, aktibo material baten balioa berreskuratu den zantzurik badago, aurreko aldietan kontabilizatutako narriaduragatik galararen itzulketa erregistratzen du sozietateak eta, ondorioz, amortizazioaren kontzeptuko etorkizuneko zordunketak doitzen ditu. Aktibo baten narriaduragatik galararen bihurketak ezin du inola ere ekarri kontabilitateko balioa aurreko ekitaldietan narriaduragatik galarak aitortu ezean izango zuena baino handiagoa izatea.

Con ocasión de cada cierre contable, se analiza si existen indicios de que el valor neto de los elementos de su activo material excede de su correspondiente importe recuperable; en cuyo caso, se reduce el valor en libros del activo de que se trate hasta su importe recuperable y se ajustarán los cargos futuros en concepto de amortización en proporción a su valor en libros ajustado y a su nueva vida útil remanente, en el caso de ser necesaria una reestimación de la misma.

De forma similar, cuando existen indicios de que se ha recuperado el valor de un activo material, la Sociedad registra la reversión de la pérdida por deterioro contabilizada en periodos anteriores y ajusta, en consecuencia, los cargos futuros en concepto de amortización. En ningún caso, la reversión de la pérdida por deterioro de un activo puede suponer el incremento de su valor en libros por encima de aquel que tendría si no se hubieran reconocido pérdidas por deterioro en ejercicios anteriores.





Sozietateak kontabilitatean aitortzen du narriaduragatik aktibo materialen balio erregistratuan egon den galera oro, halakorik balego, eta galdu-irabazien kontuko «Gainerako aktiboen narriaduragatik galerak (garbia) – Aktibo materialak» epigrafea erabiltzen du horretarako. 2018ko eta 2017eko abenduaren 31n ez zegoen aktiboen narriaduragatik galerarik.

Halaber, ekitaldiaren amaieran gutxienez estimatutako bizitza baliagarria, hondar-balioa eta amortizazio-metodoa berrikusten dira sozietateak berak erabiltzeko ibilgetu materialeko elementuei dagokienez, horrelakoetan egondako aldageta nabarmenak antzemateko, eta, halakorik egon bada, bizitza baliagarri berrien araberako etorkizuneko ekitaldietako amortizazioak zuzenduz doituko dira.

Sozietateak berak erabiltzeko aktibo materialen kontserbazio- eta mantentze-gastuak egiten diren ekitaldiko emaitzetara zorduntzen dira.

2018ko eta 2017eko abenduaren 31n ez zegoen finantza-errentamenduko araubidean eskuratu edo lagatako aktiborik, ezta higiezin inbertsio gisa sailkatutako aktiborik ere.

#### **h) Errentamendu-eragiketen kontabilizazioa**

2018ko eta 2017eko abenduaren 31n dauden errentamendu guztiak operatiboak dira eta bulegoko ekipamenduari eta garraio-elementuei dagozkie. Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentatzailearena izango da errentan emandako ondasunaren jabetza, eta funtsean bere gain izango ditu ondasunari dagozkion arrisku eta abantaila guztiak.

Sozietatea maizterra denean, errentamenduaren gastuak, errentatzaileak emandako pizgarriak barne, halakorik badago, galdu-irabazien kontuan linealki zorduntzen dira, «Gastu orokorrak» epigrafean (9. eta 16.2 oharra).

La Sociedad reconoce contablemente, en su caso, cualquier pérdida que haya podido producirse en el valor registrado de activos materiales con origen en su deterioro, utilizando el epígrafe "Pérdidas por deterioro del resto de activos (neto) – Activos materiales" de la cuenta de pérdidas y ganancias. Al 31 de diciembre de 2018 y 2017 no había pérdidas por deterioro de activos.

Asimismo, al menos al final del ejercicio se procede a revisar la vida útil estimada, el valor residual y método de amortización de los elementos del inmovilizado material de uso propio, de cara a detectar cambios significativos en los mismos que, de producirse, se ajustarán mediante la corrección de las amortizaciones de ejercicios futuros en virtud de las nuevas vidas útiles.

